



ATSOTITZAK

Materiala: arbela eta atsotitz-zerrenda.

Jokatzeko era:

Taldeka jarriko dira mahaietan. Monitoreak atsotitz bat hartuko du, atsotitz horrek zenbat hizki horrenbeste marratxo jarriko ditu arbelean. Talde batek kontsonante bat esanez emango dio hasiera atsotitza asmatzeari (talde guztiek izango dute aukera hori). Jo dezagun esan duten kontsonantea hiru aldiz dagoela esaldian; orduan, hiru puntu jasoko ditu talde horrek eta beste kontsonante bat emateko aukera izango du. Kontsonante hori bi aldiz badago, bi puntu; beraz, aurrekoekin batuz, bost puntu. Hiru puntu lortzen dutenean bokal bat esateko aukera emango zaie (bokalek ez dute punturik gehitzen ezta gutxitzen ere) eta kontsonanteak ematen jarraituko dute huts egin arte. Huts egiten dutenean, monitoreak arbelaren alde batean huts egindako kontsonantea idatziko du eta hurrengo taldeari atsotitzarekin jarraitzeko aukera emango dio. Horrela, atsotitza asmatu arte. Atsotitza asmatzeagatik hamar puntu eskuratuko dituzte eta, gainera, esanahia ondo azaltzen badute, beste hamar puntu.

